

23. FITXA BIZKAIA – Industrialdearen Jarduketa Planean aurreikusitako modernizazio, egokitzapen eta hobekuntzarako inbertsioak egiteko dirulaguntzak.

Nori zuzendua: Industrialderen bat kokatuta dagoen Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeak, industrialdearen azalera osoaren %50 baino gehiago edo azalera eraikiaren %50 baino gehiago jabetza pribatukoa bada.

Sarbide-esteka: [Ekonomia Sustapeneko Bulego birtuala \(bizkaia.net\)](http://ekonomia.sustapeneko.bulego.birtuala.bizkaia.net)

Erreferentziazko araudia: [47/2024 FORU DEKRETUA, apirilaren 25ekoa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, 2024 urterako Industrialdeetako dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdiak onesten dituena.](#)

Eremuak: Ekonomia sustapena

Zenbatekoa: 500.000 € (2. Arloa)

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/05/13tik (08:30ean) 2024/06/13ra (13:30ean)

Laburpena

2. Arloa: Industrialdearen Jarduketa Planean aurreikusitako modernizazio, egokitzapen eta hobekuntzarako inbertsioak egiteko dirulaguntzak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

Industria-poligonoaren jarduketa-planean zehaztu eta adostutako inbertsioak, haien ardura duten erakundeek egindakoak. Inbertsioak honako hauek izango dira:

- A motako inbertsioak: titulartasun publikoko espazioak eta oinarrizko zerbitzuak (ura, zaborra, argiteria, bide-sarea, eta abar) hobetu eta egokitzeko.
- B motako inbertsioak: Poligonorako balio erantsiko zerbitzuetan (konektibitatea, segurtasuna, seinaleak, haurtzaindegia, eta abar).
- C motako inbertsioak: Energia-eraginkortasunean, ingurumen-hobekuntzan, energia berriztagarrietan, mugikortasunean eta irisgarritasunean).

Industrialdeko jarduketa-planean aurreikusita dauden inbertsioak egiteko jarduketak joko dira diruz laguntzeko egitatetzat.

Hasiera batean toki-erakundearekin egin eta adostu zen jarduketa-planean jasota ez zeuden inbertsioak aurkezten badira dirulaguntzara, inbertsio horiek jatorrizko planari erantsi beharko zaizkio, eta horiek onartzen dituela adierazten duen agiri bat erantsi beharko da, bai enpresa-taldearen aldetik, bai toki-erakundearen aldetik.

Gastuetarako aldi hautagarria

2. Arloan diruz lagundutako jarduerak edo proiektuak 2023ko abenduaren 1etik 2025eko irailaren 30era bitartean hasi eta amaitu beharko dira.

Laguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitekeen gastuaren %60 izango da. Dirulaguntzaren zenbateko osoa ezin da izan 90.000 euro baino handiagoa erakunde onuradun bakoitzarentzat.

Erakunde onuraduna eremu behartsuetako udalerrri batean badago, dirulaguntzaren ehunekoa diruz lagundu daitekeen gastuaren %70 izango da. Kasu horretan, dirulaguntzaren zenbateko osoa ezin da izan 100.000 € baino handiagoa erakunde onuradun bakoitzarentzat.